

**1/2018 ERREGE LEGE DEKRETUAREN TESTU ARTIKULUDUNA. ALDAKETAK
MARKATURIK DAUDE ETA NAFARROAN APLIKATU BEHARREKO AURREKONTU
EGITURA KONPARATZEN DA**

1. artikulua. Toki entitateen 2017ko superabitaren xedea.

Toki udalbatzen 2017ko aurrekontuaren superabitaren xedeari dagokionez, 2018ra luzatzen da Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren seigarren xedapen gehigarrian jasotako arauen aplikazioa; horretarako, aintzat hartu behar da Toki Ogasunei buruzko Legearen testu bateginaren hamaseigarren xedapen gehigarria (hura martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).

Inbertsio proiektu bat ezin bada osorik gauzatu 2018an, 2018an baimendutako gastutik gelditzen dena 2019ko ekitaldian gauzatu eta aitortzen ahalko da, 2018ko diruzaintzako gerakinaren kargura finantzatuta, eta hari kenduko zaio delako zenbatekoa. Udalbatzak, betiere, ezin du defizita izan 2019ko ekitaldiaren bukaeran.

2. artikulua. *Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Toki Ogasunei buruzko Legearen testu bateginaren aldaketa.*

Hamaseigarren xedapen gehigarriaren 1. eta 2. atalak aldatzen dira martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Toki Ogasunei buruzko Legearen testu bateginean. Hona hemen hitzez hitz:

«1. Toki entitateek egitea inbertsioa, baldin eta zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak badituzte.

EHA/3565/2008 AGINDUA, abenduaren 3koa

235/2015 Foru Dekretua

<p>Gainera, bere isla izan behar du abenduaren 3ko EHA/3565/2008 Aginduaren I. eranskinean jasotako programa taldeetan (haren bidez, toki entitateen aurrekontuen egitura onetsi zen):</p> <p>160. Estolderia. 161. Edateko uraren etxeko hornidura. 162. Hondakinak bildu, deuseztatu eta tratatzea. 165. Kaleko argiteria. 172. Ingurumena babestu eta hobetzea. 412. Nekazaritzako eta abeltzaintzako egiturak eta produkzio sistemak hobetzea. 422. Industria. 425. Energia. 431. Salerosketa. 432. Informazio eta sustapen turistikoa. 441. Bidaiarien garraioa. 442. Garraioaren azpiegiturak. 452. Ur baliabideak. 463. Ikerketa zientifikoa, teknikoa eta aplikatua. 491. Informazioaren gizartea. 492. Ezagutzaren kudeaketa.</p>	<p>A A) Gainera, bere isla izan behar du abenduaren 3ko 234/2015 Aginduaren I. eranskinean jasotako programa taldeetan (haren bidez, toki entitateen aurrekontuen egitura onetsi zen):</p> <p>160. Estolderia, hondakin uren hustuketa eta tratamendua. 161. Edateko uraren etxeko hornidura. 162. Hondakinak bildu, deuseztatu eta tratatzea. 165. Kaleko argiteria. 172. Ingurumena babestu eta hobetzea. 412. Nekazaritzako eta abeltzaintzako egiturak eta produkzio sistemak hobetzea. 422. Industria. 425. Energia. 431. Salerosketa. 432. Informazio eta sustapen turistikoa. 441. Bidaiarien garraioa. 442. Garraioaren azpiegiturak. 452. Ur baliabideak. 463. Ikerketa zientifikoa, teknikoa eta aplikatua. 491. Informazioaren gizartea. 492. Ezagutzaren kudeaketa.</p>
---	---

<p>B) Inbertsioak bere isla izan behar du ondoko programetako batean:</p> <p>132. Segurtasuna eta ordena publikoa.</p> <p>133. Trafikoaren eta aparkatzearen antolamendua.</p> <p>135. Babes zibila.</p> <p>136. Suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzua.</p> <p>153. Eremu publikoa.</p> <p>171. Parkeak eta lorategiak.</p> <p>231. Lehen mailako gizarte laguntza.</p> <p>321. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen sorrera.</p> <p>323. Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeen funtzionamendua.</p> <p>332. Liburutegiak eta artxiboak.</p> <p>333. Kultur ekipamenduak eta museoak.</p> <p>336. Historia eta arte ondarearen babesa.</p> <p>342. Kirol instalazioak.</p> <p>453. Errepideak.</p> <p>454. Auzo bideak.</p> <p>933. Ondarearen kudeaketa (horren barnean, toki entitateen jabetzako azpiegiturak eta higiezinak, zerbitzu publikokoak, eraberritu, konpondu eta hobetzea, baita desgaitasuna dutenen eta adinekoren irisgarritasun unibertsala lortzeko azpiegiturak egokitzeko jarduketak ere).</p>	<p>B) Inbertsioak bere isla izan behar du ondoko programetako batean:</p> <p>132. Segurtasuna eta ordena publikoa.</p> <p>133. Trafikoaren eta aparkatzearen antolamendua.</p> <p>135. Babes zibila.</p> <p>136. Suteak itzaltzeko zerbitzua.</p> <p>153. Eremu publikoa.</p> <p>171. Parkeak eta lorategiak.</p> <p>231. Gizarte zerbitzuen lehen mailako arreta.</p> <p>321. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen sorrera.</p> <p>323. Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeen funtzionamendua.</p> <p>332. Liburutegiak eta artxiboak.</p> <p>333. Kultur ekipamenduak eta museoak.</p> <p>336. Historia eta arte ondarearen babesa eta kudeaketa.</p> <p>342. Kirol instalazioak.</p> <p>453. Errepideak.</p> <p>454. Auzo bideak.</p> <p>933. Ondarearen kudeaketa (horren barnean, toki entitateen jabetzako azpiegiturak eta higiezinak, zerbitzu publikokoak, eraberritu, konpondu eta hobetzea, baita desgaitasuna dutenen eta adinekoren irisgarritasun unibertsala lortzeko azpiegiturak egokitzeko jarduketak ere).</p>
--	--

Programaren **azken** talde horietan inbertsio gasturik badago eta goiko atalean aipatutako programen taldeetan inbertsio gastu bat egiten bada, **15 milioi eurotik gorakoa edo kasuan kasuko toki entitatearen gastu ez finantzario osoaren %40tik gorakoa**, eta horrek inbertsio proiektuei lotutako gastuen egoeraren 1. edo 2. atalak handitzea ekartzen badu, aldez aurreko baimena eman beharko du Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Autonomia Erkidegoetako eta Udaletako Finantzazioaren Idazkaritza Nagusiak ¹.

2. Honako inbertsio hauek uzten dira bazter: 5 urtetik beherako bizitza erabilgarria dutenak edo altzariei eta tresnei dagozkienak, **non ez diren erabiltzen aurreko atalean jasotako programen taldeei lotutako zerbitzuak emateko**. Ibilgailuen inbertsioak ere bazter gelditzen dira, non ez diren erabiltzen honako zerbitzu hauek emateko: **hondakinak bildu, deuseztatu eta tratatzea, segurtasuna eta ordena publikoa, babes zibila, suteak prebenitu eta itzaltzea** eta bidaiariaren garraioa.»

¹ Lehengo idazketak 10 milioi euro xedatzen zuen.